



3

5

6

3

4

7

8

1

2

OÑATIKO UNIBERTSITATEA

IRAKURTZEN IKASI *EZ* DUGUN HARRIZKO LIBURUA

Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitateak Euskal Pizkundeko ondare arkitektonikorik baliotsuenetako bat gordetzen du. Bertako txoko bakoitza, harri bakoitza, erliebe bakoitza eta xehetasun bakoitza mezu bat helarazteko sortu ziren; gaur egunera arte iritsi den oihartzuna duen mezua: gizakiaren heziketa integrala. Jon Sagarzazu irakasleak haren esanahia ulertzen laguntzen digu.



Jon Sagarzazu

S

ancti Spiritus
Unibertsidadea
da, zalantza barik,
Euskal Herriko
Errenazimentuko

eraikinik adierazgarriena eta XVI. mendeko Espainiako altxor arkitektonikorik handienetako bat. Mendeetan zehar miretsia izan da bere fatxadearen harmoniagaittik, klaustroaren dotoreziagaittik eta eskulturen kalidadeagaittik. Baina monumentu horren edertasunaren atzean errealidade askoz sakonago bat ezkututzen da. Jon Sagarzazu oñatiar ikertzailearen esanetan, Unibertsidadea benetako hezkuntza eta filosofia programa moduan sortu zan; ikasleak atea zeharkatu aurretik bertatik irakasteko pentsautako eraikina. Bere proposamenak monumentua beste begirada batekin ikustera gonbidatzen gaitu. Unibertsidadea ez litzateke arkitekturako maisulan aparta bakarrik izango, baizik eta diskurtso bisual erraldoi bat; bertan eskultura, sinbolo eta espazio bakoitxak gizakiaren, ezagutzearen eta hezkuntzearen inguruko ikuspegi jakin bat adierazten dau. Beste modu baten esanda, Unibertsidadea mendeetan zehar bere hizkuntzea ahazten joan garan harrizko liburu bat izango litzateke. Artikulu hau Jon Sagarzazuk joan dan ekainaren 24an, eguaztenean, Oñatiko Kultur Etxian emondako hitzaldian oinarritzen da.

RODRIGO MERCADO DE ZUAZOLAREN AMETSA

Hizkuntza hori ulertzeko ezinbestekoa da bere sortzaileari barriro begiratzea. Rodrigo Mercado de Zuazola ez zan Unibertsidadearen sustatzaile ekonomikoa bakarrik izan. Sagarzazuren ustez, eraikina gotzainak bizitza osoan izan eban ideia baten gauzatzea da: hezkuntzea zala pertsonak zein gizartea eraldatzeko tresnarik indartsuena. Zuazolaren beraren ibilbideak azaltzen dau pentsatzeko modu hori. Oñatin jaioa, gizarte maila berezirik ez eukan familia baten barruan, ikasketetan aurkitu eban Carlos V.aren Monarkiako kargurik garrantzitsuenetako batzuetara heltzeko bidea.

Ávilako gotzain izan zan, Nafarroako erregeorde eta Granadako Errege Kantzelaritzako presidente; Koroako erakunde judizialik garrantzitsuenetako baten buru. Sagarzazuk azaltzen dauanez, bizi-esperientzia horrek arrasto sakona itxi eutson Zuazolari. Berak argi eukan lortutako gorakadea ez zala egoera politikoaren ondorio hutsa izan, jasotako prestakuntza intelektualaren fruitua baino. Ideia hori argi agertzen da 1534ko irailaren 24an Oñatiko kontzejuari bialdu eutson gutunean; dokumentu hori Unibertsidadearen benetako sorrera-agiritzat hartu daiteke. Gutun horretan adierazten dau «letrek» emon eutsela erregearen zerbitzura eta duintasunera heltzeko aukerea. Horregaitik erabaki eban bere ondasunen zati handi bat Oñatiko eta Euskal Herri osoko gazteek antzeko prestakuntza jaso ahal izateko ikastetxe bat sortzera bideratzea. Helburua ez zan gramatika edo Zuzenbide Kanonikoa irakastea bakarrik. Benetako letraduak hezi gura zituan: Elizaren zein Monarkiaren administrazioaren zerbitzurako ondo prestatutako gizon kultuak. Sagarzazuk azpimarratzen dau xehetasun hori funtsezkoa dala. XVI. mendean «letradura» hitzak gaur egun baino esanahi askoz zabalagoa eukan. Ez zan jurista hutsa. Humanismoaren bidez hezitako gizona zan: gobernuan parte hartzeko, justizia administratzeko, printzeei aholku emoteko eta ardura publikoak hartzeko gai zana, prestakuntza intelektual eta moral sendo bati esker.

IKASTETXE BAT, EZ UNIBERTSIDADE HUTSA

Sagarzazuren ustez, funtsezko beste alderdi bat da Errenazimentu garaian «ikastetxe-unibertsidade» batek benetan zer esan gura eban ulertzea. Gaur egun, Unibertsidadea Arrasatetik Oñatira sartzerakoan herriaren sarreran nagusitzen dan eraikinagaz lotzen dogu zuzenean. Baina eraikin hura askoz ere erakunde konplexuago baten ageriko zatia baino ez zan.

IRAKASTEN DUEN FATXADA BAT (I)



HERKULES. ERAIKINAREN GAKOA. Fatxadaren muin intelektuala da. Herkules Nemeako lehoiaren eta Lernako Hidraren aurka borrokan agertzen duten eszenak haren bizitzako pasarte hutsak baino askoz gehiago dira. Humanismoaren funtsezko ideia adierazten dute: gainditutako erronka bakoitzak gizakia sendotu egiten du.



EMAKUMEAK, IBILBIDE MORALA. Eraikinak hogeita hamar emakume irudi baino gehiago biltzen ditu. Haien bidez, ikasleei gogorarazten zitzairen benetako ezagutza bere osotasunean bakarrik lor daitekeela zuhurtziaz, justiziaz, sendotasunez, neurritasunez, fedez, itzaropenez eta karitatez lagunduta dagoenean.

Unibertsidadea irakasleek, kolegialek, ikasleek eta langileek osatzen eben; San Migel parrokiaren barruan egoan unibertsidade-kaperak; ikasleen bizilekuek; ikasketarako prestatutako guneek; eta Europako ikastetxe nagusien eredia jarraitzen eban komunitate akademiko oso batek.

Puntu honetan, Sagarzazuk Salamankagaz egiten dauen konparaketak argi handia emoten dau. San Bartolome Ikastetxe Nagusian jasotako prestakuntzak sakon markau eban Zuazola. Ez eban Salamankako antolaketa akademikoa bakarrik eredutzat hartu; ikasle garaian ezagutu eban espiritu humanistaren zati handi bat be Oñatira ekarri eban.

Baina loturak ez dira hor amaitzen. Ikertzaileak Oñatiko Unibertsidadea Europako humanismoaren beste ikastegi handi batzuek lotzen dau, Oxford, Cambridge edo Alcalá de Henaresegaz, besteak beste. Bere ustez, Oñati ez litzateke fundazio isolatu moduan ulertu behar; aitzitik, Errenazimentuko unibertsidade-kultura handiaren barruan guztiz txertatutako erakundea izan zan.

IRAKASTEN DAUEN FATXADEA

Seguruenik, Sagarzazuren ikerketaren ekarpenik deigarriena fatxadearen programa eskultorikoaren interpretazino barria da. Belaunaldi askotan eskultura horreek batez be euren balio artistikoagaitik miretsi izan doguz. Halan da be, ikertzaileak benetako hezkuntza-tratatu baten moduan irakurtzea proposatzen dau:

- Ez dago ezer kasualidadez jarrita.
- Pertsonaia bakotxak aurretik ondo pentsautako egitasmo bati erantzuten deutso.
- Erlike bakotxak mezu bat transmititzen dau.
- Fatxadeak berba egiten dau.

Eta XVI. mendeko Europako unibertsidade handiek erabiltzen eben hizkuntza sinboliko berbera erabiliz egiten dau.

Testuinguru horretan, Herkulesen irudiak aparteko garrantzia hartzen dau. Lehen begiratuan harrigarria egin leiteke mitologia klasikoko heroi bat kristau unibertsidade baten hain toki nabarmenean agertzea. Baina Errenazimentuko humanistentzat Herkules gizon bertutetsuaren eredurik gorena zan.

Sagarzazuk gogorarazten dau Errenazimentuak Herkules ahalegin pertsonalaren ikur nagusi bihurtu ebala. Bere lanak ez ziran indar fisikoaren erakustaldi hutsak; hobekuntza moralaren bidea adierazten eben. Gaingitutako erronka bakotxak hurrengoari aurre egiteko indartsuago eta prestatuago egiten eban heroia. Ikertzailearen esanetan, ideia hori bera ageri da Oñatiko Unibertsidadean be. Ikaslea gero eta zailtasun handiagoei aurre eginez hazten da. Hezkuntzea, azken baten, oraindino ez daukaguzan gaitasunak garatzea da.

Interpretazino horrek, gainera, orain arte modu orokorrean identifikatu izan diran hainbat eszena barriro aztertzea ekarri dau. Zaragoza, Úbeda eta beste hainbat hiritan gordetzen diran eskultura-ereduak alderatuta, Sagarzazuk fatxadako hainbat erlieberen irakurketa barriak proposatzen dauz, Herkulesen bizitzako pasarte zehatzakaz eta Carlos V.aren gortean erabilitako programa ikonografikoakaz zuzenean lotuz.

Lotura horreek erakusten dabe Oñatiko Unibertsidadea orain arte uste izan dan baino sare artistiko eta intelektual askoz zabalago baten barruan kokatzen dala, eta eraikinaren gaineko etorkizuneko ikerketetarako bide barriak zabaltzen dabez.

ERAIKINA, FILOSOFIA-TRATATU BAT

Herkulesen irudia Unibertsidadearen hezkuntza-programarako sarrera bada, Jon Sagarzazuren esanetan eraikinaren benetako muin intelektuala pauso bat harago dago. Fatxadeak ez dau ahalegin pertsonalaren eredia bakarrik proposatzen; filosofia klasikoan oinarritutako eta Errenazimentuko humanismo kristauak barriro landutako gizakiaren ikuspegi jakin bat be aurkezten dau.

Puntu honetan aparteko garrantzia hartzen dau ikertzaileak Nemeako lehoiaren eta Lernako Hidraren eszenei emoten deuten interpretazinoak.

Orain arte eskultura horreek Herkulesen bizitzako pasarte huts moduan ulertu izan dira. Baina Sagarzazuren ustez, fatxada nagusian daukien kokapena askoz asmo sakonago baten ondorioa da.

IRAKASTEN DUEN FATXADA BAT (ETA II)



ZUZIEN ESANAHIA Ez dira fatxadako zutabeak koroatzen dituzten apaingarri hutsak. Espiritu Santuaren sua eta unibertsitateko bizitza bultzatu behar duen grina intelektuala irudikatzen dituzte. Haiei esker argitzen da zergatik Espiritu Santuari eskainitako erakunde batek, itxuraz, ez zuen Hirutasun Santuko hirugarren kidearen irudikapenik.



EZKUTUEN 'EZKUTUKO' MEZUA. Armarrietako eguzkiak ez dira apaingarri heraldiko hutsak. Platonen ikuspegiaren oroigarri dira; haren ustez, eguzkiak mundu materiala eta ideien mundua argitzen ditu. Eraikin osoa argi bikoitz horren inguruan antolatuta dago: munduko argi naturala eta Kristoren argia.

Berak azaltzen dauanez, eskultoreak Herkules lehoiaren larruagaz jantzita irudikatu eban, Hidrari aurre egin aurretik. Xehetasun horrek garrantzi handia dauka, humanismoaren berezko ideia pedagogiko bat adierazten dauelako: gainditutako erronka bakotzak gizakia sendotu egiten dau eta hurrengoari aurre egiteko prestatu. Benetako hezkuntzea, hain zuzen be, etengabeko hazkunde horretan datza.

Baina interpretazinoa harago doa. Platonen Errepublikan lanean oinarrituta, Sagarzazuk irudi horreek giza arimaren deskribapen platoniko ezagunagaz lotzen dauz. Bertan hiru osagai agertzen dira: gizakia, lehoa eta grina neurribakoak irudikatzen dituan izaki ikaragarri bat. Arrazoiak, gizakiak ordezkaturak, multzo osoa gidatu behar dau, lehoiaren indarra baliatuz pasioak mendean eukitzeko. Ikertzailearen ustez, tradizio filosofiko horren eta Oñatiko eskulturen arteko antzekotasuna handiegia da kasualidade hutsa izateko. Unibertsidadeak ez eban Zuzenbidea edo Teologia bakarrik irakasten; norbere burua gobernatzeko ereduak be proposatzen eban. Komunitate bat gidatzeko asmoa izan aurretik, ikasleak bere bizitza gobernatzen ikasi behar eban. Ideia hori guztiz bat dator erakundea sortu zan helburuagaz. Rodrigo Mercado de Zuazolak Elizan eta Monarkiaren administrazioan ardura publikoak hartuko ebezan gizonak hezi gura zituan. Horretarako ez zan nahikoa ezagutza teknikoak transmititzea. Izaerea bera hezi egin behar zan.

BERTUTETIK JAKINDURIARA

Ikuspegi berberak azaltzen dau, Sagarzazuren esanetan, fatxadean emakumezko irudiek daukien presentzia hain handia. Argi identifikatu daitekezan gizonezko pertsonaiak gitxi dira: Herkules, San Jeronimo, San Agustin eta Zuazola bera. Eraikinak, barriz, hogeita hamar emakumezko irudi baino gehiago batzen dauz. Luzaroan eskultura horreek apaingarri huts moduan ikusi izan dira. Halan da be, guztiz antolatutako multzo bat osatzen dabe. Bertutearen kardinalak eta bertute teologalak irudikatzen ditue, eta bertute horreek euren bizitzaren ereduz agertu ebezan santakaz batera azaltzen dira.

Holan, Unibertsidadea ikaslea geletara sartu aurretik hasten da irakasten. Eraikinak gogorarazten dau ezagutzak bere osotasuna prudenziagaz, justiziagaz, sendotasunagaz, neurritasunagaz, fedeagaz, itxaropenagaz eta karidadeagaz batera baino ez dauela lortzen. Ikuspegi horretatik, fatxadea eskulturen pilaketa hutsa izatetik benetako ibilbide moral bihurtzen da.

ESPIRITU SANTUA GURE BEGIEN AURREAN EGOAN

Sagarzazuren ikerketak proposatzen dauan aurkikuntzarik deigarrienetako batek Unibertsidadearen izenari berari egiten deustoa erreferentzia.

Harrigarria da Sancti Spiritus izena daroan erakunde baten fatxadean Espiritu Santuaren irudi agerikorik ez ikustea. Aita argi azaltzen da kanpai-horman, eta Kristok programa ikonografikoaren ardatz nagusia hartzen dau. Halan da be, mendeetan inork ez eban jakin Trinitateko hirugarren pertsona non egoan adierazten.

Erantzuna ia oharkabean pasatzen jakun elementu baten egon leiteke.

Fatxadako zutabeen gainean dagoen zuziak ez lirateke Errenazimentuko apaingarri hutsak izango. Ikertzaileak azaltzen dauanez, garaiko hainbat tratatu eta eraikinek sugar horreek erabiltzen ditue Espiritu Santuaren sua eta unibertsidade-bizitza bizitu behar dauen grina intelektuala irudikatzen.

Interpretazio hori are sendoagoa da zuzien kokapena kontuan hartzen bada. Profeten gainean agertzen dira, hain zuzen be, haien ahotik berba egiten dauen Espirituaren ekintza gogoraraziz. Holan, eraikin osoa suzko eratzun sinboliko batek inguratuta gelditzen da, ezagutzearen jainkozko inspirazioa iradokiz.

Zuazolaren bi eguzkiak

Seguruenik, ikerketaren ekarpenik originalena Rodrigo Mercado de Zuazolaren armariaren eta bai Unibertsidadean bai sortzaileari lotutako beste elementu batzuetan behin eta barriro agertzen diran bi eguzkien interpretazio barria da.

Orain arte eguzki horreek elementu heraldiko huts moduan hartu izan dira. Sagarzazuk, osterak, guztiz bestelako irakurketa bat proposatzen dau. Abiapuntua barriro be Zuazolaren goiburu episkopalean aurkitzen da:

**UNIBERTSITATEA
IDEIA BATEN
GAUZATZEA DA: HEZKUNTZA DA
PERTSONAK ETA
GIZARTEA
ERALDATZEKO
TRESNARIK INDARTSUENA.**



PLAZAOLA

NORBERAREN BILAKETARAKO ESPAZIOA



MILAKA EGUZKI. Unibertsitateko patrioko sabai kasetoiduna mila eta laurehun eguzki zizelkatuz estalita dago. Eztabaidarako eta irakaskuntza publikorako gunea zen. Norberaren gogoetarako espazioa ere bai. Hemen berriro ere ageri da eguzkiaren ikuspegia: mundu naturala zein mundu espirituala argitzen dituen izar gisa.



UNIBERTSITATEAREN BIHOTZA. Patrioa (klostroa) ez zen igarobide hutsa. Errenazimentuko unibertsitateetan ezagutzaren ibilbidea sinbolizatzen zuen. Haren inguruan antolatzen ziren beheko solairuko ikasgelak, kapera, jantokia eta sukaldea; goiko solairuan, berriz, ikasleen logelak eta ikasgela nagusia zeuden.

Sol iustitiae Christus Deus noster.
 «Kristo, gure Jainkoa, Justiziaren Eguzkia da.»
 Ikertzaileak ohartzen dau armariaren bi
 bertsino desberdin dagozela: bata
 gotzainarena da, eta bestea
 Unibertsidadearena. Azken horrek aldaketa
 esanguratsuak daukaz, eta horrek erakusten
 dau multzo osoa nahita moldatu zala mezu
 jakin bat adierazteko.
 Azalpena barriro be tradizino platonikoan
 aurkitzen dau.
 Errepublika lanean, Platonek mundu materiala
 argitzen dauen eguzki ikusgarria eta egiaren
 ezagutzea ahalbidetzen dauen beste eguzki
 ulergarri bat bereizten ditu. Geroago, San
 Agustinek bigarren eguzki hori Kristogaz
 identifikatu eban. Sagarzazuren esanetan,
 Oñatiko Unibertsidadeak ideia filosofiko hori
 arkitektura bihurtzen dau.
 Eraikin osoa argi bikoitz horren inguruan
 antolatuta dago: mundua ikusteko balio dauen
 argi naturala eta hura ulertzeko aukera
 emoten dauen Kristoren argia.

PATIOKO MILA ETA LAUREHUN EGUZKIAK

Interpretazino horrek bere adierazpenik
 beteena Unibertsidadeko lekurik
 ezagunenetako baten hartzen dau, eta, era
 berean, paradoxikoki, gitxien erreparatu izan
 jakon lekuan.
 Patioak lehen begiratuan zurezko artesonatu
 handi bat baino ez dau erakusten.
 Baina goiko galerietara igoten dana laster
 konturatzen da sabaia mila eta laurehun
 eguzki txiki zizelkatuz baino gehiagogaz
 estalita dagoela.
 Ez da apaingarri hutsa. Goiko galeriak kolegiaren
 bizilekua ziran. Han ikasten eben, han
 hausnartzen eben eta han egiten eben euren
 eguneroko bizimodua. Beheko patioa, barriz,
 eztabaidarako eta irakaskuntza publikorako
 lekua zan. Galeriek, oster, gogoeta
 pertsonalerako gunea adierazten eben.
 Sagarzazuren ustez, banaketa horrek San
 Agustinen pentsamenduaren ideia sakon bat
 islatzen dau: benetako ezagutzak
 kontenplazinoa eta barrurako begiradea be
 eskatzen ditu. Egia ez da maisuei entzunez
 bakarrik lortzen; norberaren bilaketa eta
 ahalegina be beharrezkoak dira.
 Ikerketa honen ondoriorik interesgarrienetako
 bat Oñatiko Unibertsidadea Europako
 humanismoaren mugimendu kultural
 handiaren barruan kokatzea da.

Salamankagaz daukan loturea agerikoa da,
 Zuazolaren prestakuntzearen ondorio zuzena.
 Alcalá de Henaresegaz dagoen
 antzekotasunek, gainera, eragin artistiko
 batzuen norabidea bera barriro aztertze
 aukera emoten dabe.
 Oxfordek eta Cambridgek antzekotasun
 harrigarriak erakusten ditue unibertsidade-
 ikastetxeen antolaketan eta hezkuntzeagaz
 lotutako hainbat baliabide sinbolikotan.
 Eta programa ikonografikoan agertzen diran
 ideia askok oihartzuna daukie Medicitarren
 Florentziako giro neoplatonikoan.
 Horrek guztiak Sagarzazu ondorio batera
 eroaten dau: Sancti Spiritus Unibertsidadea ez
 litzateke tokiko salbuespen moduan azertu
 behar; XVI. mendeko humanismoaren kultura
 handiaren barruan guztiz txertatutako pieza
 lez baizik.

BERRESKURATU BEHARREKO ONDAREA

Unibertsidadea ulertzeko modu honek ondorio
 nagusi bat dauka: haren kontserbazinoa ezin
 da eraikina zaharbarritzera mugatu.
 Sagarzazuren ustez, Rodrigo Mercado de
 Zuazolak itxi euskun ondarerik handiena ez da
 arkitektura-multzo bikain hau bakarrik,
 hezkuntzea ulertzeko modu jakin bat baizik.
 Unibertsidadea pertsonak hezteko sortu zan,
 espezialistak baino lehen; norbere burua
 gobernatzen ikasiko eben gizonak
 prestatzeko, besteak gidatzeko ardurea hartu
 aurretik; eta prestakuntza intelektuala
 bertuteagaz banaezin lotuta izango eben
 herritar kultuak hezteko.
 Bostehun urte geroago, mezu hori harriz
 idatzita dago oraindino. Halan da be, urte
 luzez Unibertsidadeari begiratu deusagu
 irakurtzen ez dakigun hizkuntza baten
 idatzitako liburu eder bati begiratu
 geunskion moduan.
 Beharbada, Jon Sagarzazuren ikerketaren
 meriturik handiena hizkuntza hori deszifratzen
 hastea izan da. Bere proposamenak
 etorkizuneko ikerketek eztabaidatu, osatu edo
 ñabartu ahal izango ditue, baina eraikinari
 begirada guztiz barri bategaz begiratzera
 gonbidatzen gaitue.
 Eta begirada aldaketa hori da, seguruenik,
 Euskal Herriko Errenazimentuak itxi euskun
 kultur ondarerik handienetako bat barriro
 deskubritzeko lehen pausoa.